

9 irailak Orduen liturgia ARANTZAZUKO ANDRE MARIA BIRJINA
(*Frantziskotarren Liturgia Berezia liburutik hartua*)

Arantzazun, Festaburua; beste lekuetan, Jaia

[Argibide laburra] Arantzazuko Andre Mariaren irudi ederra Aloña mendiaren malda malkartsu batean aurkitu zuen Baltzategiko Errodrigo artzainak, 1469 urtearen inguruan. Garai hartan, miseria eta zorigaitza zabaldurik zegoen euskal lurraldeetan. Eta irudiaren aurkitze honek bakea eta goraldia ez ezik, kristan fedearen berritzea ere ekarri zuen gure eskualdeetara. Arantzazuko Andre Mariaren irudia ofizialki koroatua izan zen 1886an. 1918an Gipuzkoako zaindari nagusi izendatua izan zen. Kantabria Probintziako Anaia txikiek beren Zaindari nagusi dute 1731etik aurrera.

GORAZARREAK, Eranskinean (ik. bereziak).

I. BEZPERAK

1.-Ant. Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen.

Salmoak eta kantika, Andre Maria Birjinaren Betikotik (1281 or.).

2.- Ant. Elisabetek Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean.

3. Ant. Nondik niri, ñire Jaunaren ama niregana etortzea?

JA1NKOAREN HITZA

Ap 12, 1. 10a

Ikusgarri handia agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia eta ilargia oinpeko, eta hamabi izarreko koroa buruan. Oihu handi bat entzun zen zerutik: "Orain etorri da salbamena, gure Jainkoaren indarra eta erregetza, eta bere Kristoren ahalmena.»

GALDERANTZUNA

R/. Guztiz ederra zara, Maria; * ez duzu jatorrizko errurik ere. R/. Guztiz...
V/ Zugan du Israelek bere poza; zugan gure herriak bere edertasuna. * Ez duzu... Aintza Aitari... R/. Guztiz...

MAGNIF. ANT. Ikusi du Jaunak nire ezereztasuna, eta handiak egin dizkit Ahalguztidunak.

ESKARIAK, Andre Maria Birjinaren Betikotik (Orduen Liturgia liburuan 1291 or.).

OTOITZA. Gorespenetakoa.

IRAKURGAIEN ORDUA

DEIA

Ant Gorets dezagun Jauna, Arantzazuko Andre Mariaren jaieguna (festaburua) ospatzean.

ANTIFONAK ETA SALMOAK, Andre Maria Birjinaren Betikotik.

LEHENENGO IRAKURGAIA (Irteera liburutik 3,1-6; 6,1a.5-8)

Zeuen Jainko izango nauzue

Egun haietan, Moises, bere aitagarreba Jetroren, Madiango apaizaren, ardiak zaintzen zebilen; basoaz beste aldera eraman zituen, eta Horebera, Jainkoaren mendira, iritsi zen. Han Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artetik ateratzen zen sugar batean. Moisesek begiratu zuen, eta sasia, sutan egonik ere, ez zen erretzen.

Orduan Moisesek esan zuen: «Banoa gauza harrigarri han ikustera: nolaz ez den sasia erretzen.» Ikusi zuen Jaunak, bazihoala begiratzera, eta dei egin zion sasi artetik, eta esan: «Moises! Moises!» Honek erantzun: «Hemen nauzu!» Eta Jaunak: «Ez hurbildu; ken oinetakoak, lur santua da eta zu zauden tokia.»

Eta esan zion gainera: «Ni zure gurasoen Jainkoa naiz, Abrahamen Jainkoa, Isaak-en Jainkoa eta Jakoben Jainkoa.» Orduan Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldurrez.

Jaunak esan zion Moisesi: «Orain ikusiko duzu faraoiari egingo diodana: indarrez beharturik, utziko dizue joaten; are gehiago, berak ateraraziko zaituzte lurralde honetatik.

«Entzun ditut egiptoarrek esklabo eginiko israeldarren intziriak eta oroitu naiz neure itunaz. Horregatik, esan israeldarrei: Neu naiz Jauna! Egiptoarrek ezarri dizueten lan astun eta esklabutzatik neuk askatuko zaituztet eta ahalmen handiz eta eskubide osoz berreskuratuko. Neure herritzat hartuko zaituztet eta zeuen Jainko izango nauzue; orduan jakingo duzue ni naizela .launa, Egiptoko lan astunetatik aterako zaituztena. Abrahami,

Isaaki eta Jakobi zin eginez agindu nien lurraldera eramango zaituztet eta haren jabe egongo. Ala ni Jauna!»

GALDERANTZUNA

R/. Agur, Jainkoaren Ama santu, Maria, Eliza bihurturiko birjina; * agur, Jainkoaren jauregia; agur, Jainkoaren jantzia.

V/. Aitak sagaratu zintuen, bere Seme maite txit santuarekin eta Espiritu Santu Laguntzailearekin. R/. Agur, Jainkoaren...

BIGARREN IRAKURGAIA

Arantzazuko Andre Maria Euskal Herriaren fede bizitzan

1469. urtean, Andre Maria artzain bati azaldu zitzaion Arantzazu izena duen Oñatiko leku malkartsuan. Azalpen horretarako, Andre Maria irudi batez baliatu zen: Ama maitagarriaren irudia, magalean Jesus haurtxoa duela. Bere herriarekin topo egiteko lekutzat, Andre Mariak elorri bat aukeratu zuen. Eta mezu hau zekarren: gizon-emakume guztiei dei egiten zien Jainkoaren adiskidetasuna eta maitasuna goza zezaten eta elkarren senide bezala bakean bizi zitezen.

Andre Maria azaltzean, Jainkoak bete-betean agertu zuen bere errukia, eta erromes ugarik jo zuten leku hartara, penitentzia eginez; haien artean zen Loiolako Ignazio ere, onbideratu berria. Mariaren presentzia Jainkoak Euskal Herri zatituari egiten zion deia izan zen, euskaldunak anaia arteko borrokak utzi eta bake osoan elkargana zitezen.

Kristau herriaren fedea harreman estua ikusi zuen berehala bi gertaera hauen artean: alde batetik, basamortuan Jainkoa Moisesi eta Israel herriariugarrezko sasi erre ezinean agertzea, eta, bestetik, euskal lurraldean Jainkoa gure herriari elorri gaineko Andre Mariarengan zehar agertzea.

Izan ere, harreman hau,ugarretan erre gabe zegoen sasiaren eta birjintasuna galdu gabe Ama den Mariaren arteko harremana, antzinako ikuskera da eliza-gurasoen gogoetan eta liturgian. Areago oraindik:ugarrezko sasi erre ezina eta Maria, Ama eta birjina, Jainkoak aukeratutako leku dira bere herriari agertzeko eta berau salbatzeko.

Era horretara, Arantzazuko Andre Maria Euskal Herriaren Ama eta Gipuzkoako Zaindaria dugu. Bere herri honek eliza eder bat eraiki dio eta bertan topo egiten du Jainkoarekin adin eta era guztietako jendeak.

Andre Maria azaldu eta handik urte gutxira, frantziskotar anaidi bat bildu zen Amaren inguruan. Anaidi honek mendeetan zehar iraun du eta badirau orain ere; eta zenbait erreketak eta oztoporen gainetik, lagun egin dio Andre

Mariari bere gorespen atergabez; Ebanjelioa hots egitera atera da eta misiolari sutsuak bidali ditu munduan barrena. Horrela, Arantzazuko Andre Mariaren zaletasuna hainbat herrialdetara zabaldu da.

Guzti horrengatik, Kantabria Probintziako frantziskotar anaidiek antzinatek hartua dute Arantzazuko Andre Maria beren Zaindaritzat, beren batasunaren bihotz eta inspirazio iturritzat. Eta era berean, Zaindaritzat daukate Ahizpa Pobreen eta Frantziskotar Sorkundetarren izen horretako Federazioek, eta beste zenbait Elkartek ere bai.

EDOTA

San Bernardo abadeak Birjina Amaren bikaintasunei buruz egindako homilietatik

(2. homilia, 1-2. 4: Opera omnia, zistertar argitalpena, 4 1966, 21-23)

Goi-goikoak prestatua, antzinako gurasoek aurrez adierazia

Jainkoari zegokion jaiotza bakarra, Birjinagandik jaiotzea zen, eta ez beste inorengandik; era berean, Birjinari zegokion erditze bakarra, Jainkoa erditzea zen, ez beste inor.

Horrengatik, gizakiaren Egileak, gizon egiteko giza arrazatik jaiotzera zihoanean, ama bat aukeratu zuen denen artetik, hobeto esanda, ama bat egin zuen, beretzat egokia zela eta atsegin izango zitzaiola zekiena.

Emakume hura, bada, birjina errugabe izan zedila nahi izan zuen, harexengandik sor zedin guztien erruak garbituko zituen Errugabea. Gainera, apala izan zedila nahi izan zuen, harengandik jaioko baitzen bihozbera eta apala izango zena, bertute hauetan denei beharrezko ejenplu salbagarria emango ziena. Eta Birjinari birjintasun erabakia aurrez bihotzeratu zionak eta apaltasun dohainaz aberastu zuenak berak, Jainkoaren Ama izalearen dohaina eman zion.

Hala izan ezean, nola deitu ahal izango zion ondoren aingeruak graziaz betea, graziatik ez zetorkion zerbait onik, txikiena izanda ere, harengan egon balitz? Horrela, bada, santuen Santua sortu eta erditu behar zuenak, birjintasun dohaina jaso zuen gorputzez santu izateko, eta apaltasun dohaina, espirituz ere santu izateko.

Era horretara, Birjina ospetsuak, bertuteen harri bitxiz apaindua, gorputzarimetako bikaintasun bikoitzez distiratsu eta zeruan bere edertasun eta dotoreziagatik bereizia zelarik, hainbesteraino bereganatu zituen zeruko

hiritar guztien begiak, Erregea bera ere maitemindu egin zuen, eta zerutar mezularia jaitsiarazi zuen beregana.

Jainkoak birjina batengana bidali zuen aingerua, hala dio Ebanjelioak. Birjina zen gorputzez, birjina arimaz, birjina bere erabakiz, azkenik — Paulo apostoluaren hitzetan— birjina santu gorputz eta arimaz; eta ez zen azken orduan edo ustekabean aurkitutakoa, baizik betidanik aukeratua, Goi-goikoak aurrez ezagutua eta beretzat prestatua, aingeruek zaindua, antzinako gurasoek aurrez adierazia eta profetek iragarria.

GALDERANTZUNA

San Frantzisko

R/. Santa Maria Birjina, munduan ez da zure antzekorik jaio emakumeen artean. * Zeruko Aitaren alaba eta mirabea, Jesu Kristo gure Jaun txit santuaren ama. Espiritu Santuaren emaztea.

V/. Egiozu otoitz gure alde zeure Seme maite txit santu gure Jaun eta Maisuari. * Zeruko Aitaren...

GORESPENAK

1.-Ant. Neure herria salbatzera jaitsi naiz. Zoaz, bada, Nik bidaltzen zaitut. Ni zurekin izango nauzu.

Salmoak eta kantika, I. igandekoak (Orduen Liturgia liburuko 641 or.).

2.-Ant. Jaunaren aingerua agertu zen, sasi artetik ateratzen zen sugar batean; sasia, sutan egonik ere, ez zen erretzen.

3.-Ant. Sinetsi zuen herriak, eta Jauna alde jarri zitzaiera jakitean, ahuspeztu eta gurtu egin zuten.

JAINKOAREN HITZA

(Ga 4, 4-5)

Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa, Legepeko egina, legepean zeudenak eroatera, guk seme-alaben ordezkotza har genezan.

GALDERANTZUNA

R/. Bera nahiago izan zuen Jaunak, * eta aukeratu egin zuen. R/.Bera...

V/. Eta Hark etxola santuan biziarazi zuen. * Eta aukeratu. Aintza Aitari...

R/. Bera...

BENED. ANT. Moisesek sugarretan ikusi zuen sasi erre ezinean, zure birjintasun galdu gabea aitortzen dugu. Jainkoaren Ama, egizu otoitz gure alde.

ESKARIAK, Andre Maria Birjinaren Betikotik (Orduen Liturgia liburuko 1284 or.).

OTOITZA

Jainko Aita errukitsua, maitasun leialez hurbildu zatzaizkigu Arantzazuko Andre Maria azaltzean: egizu, fedez har zaitzagula eta maitasunean bat egindako familia izan gaitezela. Zure Seme Jesu Kristo...

TARTEKO OTOITZA.

Andre Maria Birjinaren Betikotik (Orduen Liturgia liburuko 1287 or.).

OTOITZA, Gorespenetakoa.

II. BEZPERAK

1..Ant. Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean.

Salmoak eta kantika, Andre Maria Birjinaren Betikotik (Orduen Liturgia liburuko 1289 or.).

2.-Ant. Zorionekoa zu, Maria, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna.

3.-Ant. Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua.

JAINKOAREN HITZA

(Ap 21. 1 -2)

Nik, Joanek, zeru berri bat eta lur berri bat ikusi nituen; lehenengo zerua eta lehenengo lurra joan baitziren; eta itsasorik ere ez zegoen. Hiri santua ikusi nuen —Jerusalem berria—, bere senargaiarentzat apaindutako andregai bezala, zerutik Jainkoarengandik jaisten

GALDERANTZUNA

V/. Hona hemen Jaungoikoaren etxola gizakien artean; * Jauna haien artean biziko da. V/. Hona hemen...

R/. Haiek izango ditu bere herri. * Jauna... Aintza Aitari... V/. Hona hemen...

Magnif. ant. Andre Maria donea, zu zara barkamenaren iturburua; zu zara graziaren eta maitasun ederraren ama; zu, munduaren itxaropena eta zeruko erregina: entzun zure seme-alabon deia.

ESKARIAK, Andre Maria Birjinaren Betikotik (Orduen Liturgia 1291 or.).

OTOITZA, Gorespenetakoa.